

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 195/2023 Erabakia, apirilaren 4koa. Onestea abere arrazetarako, abereen osasunerako eta abereen ekoizpenerako programa kolektiboak kudeatzeko laguntzen 2023ko deialdia

Foru Gobernu Kontseiluaren uztailaren 20ko 34/2021 Foru Dekretuaren bidez, onetsi ziren Arabako Lurralde Historikoan abere arrazak hazteko, animalien osasuneko eta animalien ekoizpeneko programa kolektiboak kudeatzeko laguntzen oinarri arautzaileak, eta bertan laguntza lerro hauek ezarri ziren:

1. Abere arrazak hazteko programen kudeaketa.
2. Animalia osasunerako programen kudeaketa.
3. Animalia ekoizpenerako programen kudeaketa.

34/2021 Foru Arauaren 7.1 artikulua haxe dio:

7.1. Urtero onetsiko da laguntza deialdia. Deialdi horrek hauek jasoko ditu:

- Deialdiko laguntza lerroak.
- Laguntzen ebazpenerako gordetzen diren kredituak.
- Eskaerak aurkezteko epea.
- Laguntzak ordaintzeko modua eta, hala badagokio, ematen den unean aurreratuko den ordainketa ehunekoa.
- Hala dagokionean, laguntzaren gutxieneko eta/edo gehieneko zenbatekoa eta/edo erakunde onuradun bakoitzeko diruz lagun daitekeen gutxieneko eta/edo gehieneko aurrekontua laguntza lerro bakoitzean.

Laguntza lerro horren 2023rako deialdirako, Arabako Foru Aldundiaren 2023ko gastuen aurrekontuko "Abeltzaintza laguntzen plana. Deialdi berria" izeneko 40.102. G/419402/48100413 partidaren kargura, guztira 700.000,00 euro gorde dira, ondoren zehazten denaren arabera:

2023. urtea: 525.000,00 euro.

2024. urtea: 175.000,00 euro.

Ondorioz, Abeltzaintza Zerbitzuak proposatzen du onespina ematea 2023rako laguntza deialdiari Arabako Lurralde Historikoan abere arrazak hazteko, abereen osasunerako eta abereen ekoizpenerako programa kolektiboak kudeatzeko.

Nahitaezko txostenak ikusirik, Nekazaritza Saileko foru diputatuak proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren, hau,

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onestea 2023rako laguntza deialdia Arabako Lurralde Historikoan abere arrazak hazteko, abereen osasunerako eta abereen ekoizpenerako programa kolektiboak kudeatzeko, xehetasun hauen arabera:

- a) Deialdiko laguntza lerroak:
 - 2.1 Abere arrazak hazteko programen kudeaketa.
 - 2.2 Animalien osasuneko programen kudeaketa.
 - 2.3 Animalien ekoizpeneko programen kudeaketa.

b) Eskakerak aurkezteko epea: hogei egun baliiodun, erabaki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta.

c) Eskabideak honako hauetan aurkeztu beharko dira:

– Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean.

– Vitoria-Gasteizko, Guardiako eta Laudioko Ogasun bulegoen erregistroan.

– Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan ezarritako gainerako erregistroetako edozeinetan.

Hala ere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 14.2 artikulua betez, honako hauek, egoitza elektronikoen bidez (<https://egoitza.araba.eus/eu/-/tr-registro-electronico-comun>), telematikoki aurkeztera behartuta daude: pertsona juridikoak; nor-tasun juridikorik gabeko erakundeak; elkargoko kide izatea nahitaezkoa duen jarduera profesional batean dihardutenak, jarduera horretan egiten dituzten izapideetarako, eta administrazioarekiko harremana elektronikoki izatera behartuta dagoen interesdun bat ordezkatzan dutenak.

d) Kreditu erreserba: Arabako Foru Aldundiaren 2023ko gastuen aurrekontuko "Abeltzaintza laguntzen plana. Deialdi berria" izeneko 40.102. G/419402/48100413 partidaren kargura, guztira 700.000,00 euro, ondoko urte hauetan honela banatuta:

2023. urtea: 525.000,00 euro (guztirako zenbatekoaren ehuneko 75).

2024. urtea: 175.000,00 euro, gainerako ehuneko 25.

Hona hemen laguntza lerro bakoitzarentzat gorde beharreko zenbatekoak:

2.1 Abere arrazak hazteko programen kudeaketa: 440.000,00 euro (330.000,000 euro 2023. urtekoaren kontura eta 110.000,00 euro 2024koaren kontura).

2.2 Animalien osasuneko programen kudeaketa: 150.000,00 euro (112.500,00 euro 2023. urtekoaren kontura eta 37.500,00 euro 2024koaren kontura).

2.3 Animalien ekoizpeneko programen kudeaketa: 110.000,00 euro (82.500,00 euro 2023. urtekoaren kontura eta 27.500,00 euro 2024koaren kontura).

Kreditu horiek zenbateko gehigarriekin handitu ahal izango dira, hasieran erreserbatutako zenbateko berdinez gehienez ere, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 21. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Laguntza lerro batean krediturik sobera badago, izapide gehiagorik gabe zuzendu ahalko da behar duten lerroetara, hasierako kredituaren proportzio berean, batean baino gehiagoan behar bada.

Saileko diputatu titularrari ahalmena ematea haietako bakoitzari esleitutako funtsak birbanatzeko, Balorazio Batzordearen proposamenez. Horretarako, ebazpena emango du, betiere deialdiaren guztirako aurrekontua errespetatuz.

e) Laguntzak ordaintzea: deialdi honetan honela egingo da ordainketa: ehuneko 75 laguntza ematen denean, eta gainerako ehuneko 25a, aurrerakin hori oinarri arautzaileen 10.1 artikuluan ezarritako moduan justifikatu ondoren, 2024ko apirilaren 1a baino lehen eta betiere hurrengo ordainketaren aurretik.

f) Laguntzaren gutxieneko eta gehieneko zenbatekoa onuraduneko lerro bakoitzean eta espedienteak sailkatzeko irizpideak: deialdi honetan, ez dira finkatzen laguntzaren gehieneko zenbatekoak ez espedienteak sailkatzeko irizpideak oinarri arautzaileetan ezarrita daudenez aparte.

Bigarrena. Erabaki honek ondorioak izango ditu ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Hirugarrena. Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio bideari, eta, haren aurka, berraztertze errekurtsoa aurkez dakioko organo horri, hilabeteko epean, argitaratu ondorengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez daiteke Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, erabakia argitaratu ondorengo egunetik aurrera, bat etorri Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikuluan ezarritakoarekin.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko apirilaren 4a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Nekazaritza Saileko foru diputatua

EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO

Nekazaritza zuzendaria

M^a ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE